



ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA, HERRIKO KIROLDEGI ONDOKO UR-TXORROEN ALBOKO LURSAIL PUBLIKO BATEN ETA UDALAK BERTAN INSTALATUKO DUEN IZOZKIEN, GOZOKIEN ETA FRESKAGARRIEN SALMENTA-POSTUAREN APROBETXAMENDU PRIBATIBOA ADJUDIKATZEKO

1. Kontratuaren xedea

Kontratuaren xedea hauxe da: herriko kiroldegi ondoko ur-txorroen alboko lursail publiko baten eta Udalak bertan instalatuko duen izozkien, gozokien eta freskagarrien salmenta-postuaren aprobetxamendu pribatiboa adjudikatzea. Kontratuak, ur txorroak martxan dauden bitartean iraungo du indarrean eta, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 1372/1986 Errege Dekretuak (ekainaren 13koa) dioenari jarraituz, emakida administratibo bidez egingo da.

Kontratua, administrazio-kontratu berezia da, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 19.1.b) artikulua araberako, kiroldegi ondoko ur-txorroetako erabiltzaileei zerbitzu publiko edota berehalakoa ematea duelako helburu,

2. Proposamenak hautatu eta kontratua esleitzeko prozedura

Kontratua prozedura irekiz esleituko da eta interesdunek euren proposamena aurkeztu ahalko dute, kontratuaren terminoei buruzko negoziazio oro baztertuta dagoelarik, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 14 artikulua araberako.

Proposamenen balorazioa egiteko eta ekonomikoki onuragarriena den eskaintza zein den erabaki ahal izateko, irizpide bakarria hartuko da aintzat eta da zeinek diru gehiago eskaintzen duen, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 150 artikulua eta agiri honetako hamabosgarren klausularen araberako.

3. Kontratatzailearen profila

Kontratuari dagokion informazioa gardena dela eta edozeinen eskuera dagoela bermatzeko, nahiz eta publizitatea egiteko beste modu batzuk ere erabili ahal izan, Udal honek kontratatzailearen profila du eta honako web orri honetan lortu daiteke: www.markina-xemein.com.

4. Kanona

Lizitazioaren oinarrizko kanona 200 euro izango da hilean, BEZ barne, eta hilean ordainduko da.



5. Kontratazio-organoa

Kontratua zenbatekoa den ikusita, eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko Bigarren Xedapen Gehigarriarekin bat etorruta, kontratua egin eta espedientea izapidetzeko eskumena Alkatearena da. Izan ere, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko Bigarren Xedapen Gehigarriaren arabera alkatea izango da kontratazio-organoa eta berea izango da lan eta hornidura zerbitzuak, zerbitzu publikoak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak kudeatzeko eskumena, kontratuon zenbatekoa lehen ekitaldiko aurrekontuko ohiko baliabideen % 10 gainditzen ez duenean.

6. Iraupena

Jabari publikoko ondasuna ustiatzeko epea, hau da, kontratuaren iraupena, 2015eko maiatzaren 15etik 2015eko urriaren 15era bitartekoa izango da.

7. Emakidadunaren eskubide eta betebeharrak

1 Kontratuaren xede den jabari publiko zatia berak bakarrik eta berea balitz lez, erabiltzeko eskubidea.

2 Jarduerarako behar izan ditzakeen lizentzia eta baimenak eskuratzekoa.

3 Jarduera kudeatu eta ustiatzekoa.

4 Agiri honetan ezarritako kanona ordaintzeko betebeharra. Honek esan nahi du, emakidadunak ordaindu beharko dituela ondasunei edo horien erabilera orokorrari edo zerbitzuari eragindako kalteordainak.


5 Erabilitako jabari publiko zatia behar den moduan zaintzeko betebeharra. beharra.

6. Txorroetako gunearen erabiltzaileek okupatutako lekua garbi eta txukun zaintzeko betebeharra (beroni erantsitako planoan).

7. Erabili izandako ondasunak agindutako epean Udalaren esku libre uzteko betebeharra, deialdia erabakitzeko eta gauzatzeko ahalmena Udalarena dela aitortuta.

8. Udalaren ahalmenak

— Udalak, epea baino lehen deuseztatu ahalko du kontratua interes publikoko arrazoiak badaude, eragindako kalte-galeren ordaina emanaz edo



ordainik barik, hala erabakiz gero.

— Udalak, emakidaren xede diren ondasun, instalazio eta eraikinak ikuskatu ahalko ditu edozein momentutan.

9. Ondasunak itzultzea

Emakidaren aldia amaitzen denean, emakidadunak Udalari itzuliko dizkio emakidaren xede izandako ondasunak, Kontratuaren arabera behartuta dagoen moduan eta ondo zainduta eta ondo funtzionatzen dutela.

10. Emakida amaitzeko kausak

Hona hemen emakida amaitzeko kausa izan daitezkeenak:

- Epea betetzea.
- Emakidaren xede izandako ondasuna desagertzea.
- Ondasunaren *desafekzioa*.
- Emakidadunak uko egitea.
- Udalak ondasuna berreskuratzea.
- Ebazpen judizialez.

11. Kontratatzeko gaitasuna egiaztatzea

Eskaintza aurkezteko, hauexek baldintzak bete behar dira: pertsona fisikoa edo juridikoa izan, jarduteko erabateko gaitasuna izan, kontratatzeke debekurik ez izan eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala egiaztatu.

Enpresaburuaren **jarduteko gaitasuna** honetara egiaztatuko da:

a) **Pertsona juridiko** diren enpresaburuek honako dokumenturen bat aurkeztu beharko dute euren jarduteko gaitasuna egiaztatzeke: enpresaren eratze-eskritura edo agiria, estatutuak edota fundazio egintza, euren jarduera arautzen duen araudia jasota eta, hala badagokie, pertsona juridiko motaren arabera erregistro publikoan inskribatuta daudelako ziurtagiria.

b) **Pertsona fisiko** diren enpresarien jarduteko gaitasuna, berriz, DNIA aurkeztuta egiaztatuko da.

2. Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 60. artikuluan aurreikusitako **kontratatzeko debekurik ez** dutela egiaztatzea erantzukizunpeko aitorten bat aurkeztuta egin ahalko da.

3. **Enpresaburuaren kaudimena:**



3.1 **Enpresaburuaren ekonomia- eta finantza- kaudimena** finantza erakunderen batek egindako aitorten bidez egiaztatu ahalko da edota, halakorik balego, arrisku profesionalengatiko kalteordain-asegurua justifikazioa aurkeztuta.

3.2. Zerbitzu-kontratuen kasuan, **kaudimen teknikoa** azken hiru urteetan egindako lanen edota emandako zerbitzu garrantzitsuen zerrenda aurkeztuta egiaztatu daiteke, lan edo zerbitzu horien zenbatekoa, datak eta hartzailea (publiko zein pribatu) zein izan den zehaztuta.

12. Proposamenak aurkeztea

Eskaintzak udaletxean aurkeztuko dira, jendaurreko ordutegi barruan, 2015eko apirilaren 30era bitartean.

Proposamenak postaz, telefax bidez edota bitarteko elektronikoko, informatiko edo telematikoko bidez aurkez daitezke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4. artikuluan xedatutako edozein lekutan.

Proposamenak postaz bidaltzen direnean, enpresaburuak bidalketa-data eta ordua egiaztatu beharko du eta epea (eguna eta ordua) amaitu baino lehen proposamena fax, telex edo telegrama bidez bidali duela jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari, kontratuaren izenburu osoa eta lizitatzaillearen izena idatzita. Udaleko idazkariak fax edo telegrama hori jaso izana egiaztatzeko eginbidea egingo du.

Proposamena onartzeko bi baldintza horiek bete behar dira. Izan ere, kontratazio-organoak lizitazioari buruzko iragarkian adierazitako epea amaitu eta gero jasotako proposamenik ez da onartuko.

Gainera, erabili daitezkeen bide elektronikoko, informatiko edo telematikoko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko Hamaseigarren Xedapen Gehigarrian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Lizitzaile bakoitzak ezin du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Ezta aldi baterako enpresa elkarte baten izenean aurkeztu ere, banaka aurkeztu bada edota enpresa elkarte bate baino gehiagoren barruan aurkeztu bada. Arau hau urratzen duen proposamenik ez zaio onartuko.

Proposamena aurkeztean, enpresaburuak agiri honetako klausula guztiak onartzen ditu, salbuespenik gabe.

Lizitazioan parte hartzeko proposamenek kartazal itxi bi izango dituzte, lizitzaileak sinatuta eta jakinarazpenak zein helbidetan jaso nahi dituen adierazita. Kartazalon kanpoaldean idatziko da kartazalaren izenburua eta honako testua: **herriko kiroldegi ondoko ur-txorroen alboko lursail publiko baten eta Udalak bertan instalatuko duen izozkien, gozokien eta freskagarrien**



salmenta-postuaren aprobetxamendu pribatiboaren lizitazioan parte hartzeko proposamena.

Kartazal bakoitzak izenburu bat izango du:

—«A» kartazala: **Dokumentazio administratiboa.**

— «B» kartazala: **Eskaintza ekonomikoa eta automatikoki kuantifikatu daitezkeen irizpideak.**

Kartazal bakoitzean sartu beharreko agiriak originalak edo kopia kautotzak izango dira, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Kartazal bakoitzean hauexek agiriak eta euron zenbakidun zerrenda sartuko dira:

«A» KARTAZALA DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

a) Enpresaburuaren nortasun juridikoa egiaztatzeko agiriak.

b) Ordezkotza egiaztatzeko agiriak.

— Inoren ordezkari aurkeztu edo eskaintza bat sinatzen duenak haren ordezkari jarduteko ahalordea aurkeztu beharko du, notarioak emanda eta udaleko idazkariak askietsita.

— Lizitatuak pertsona juridikoa bada, ahalorde hori Merkataritza Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatu beharko da, legeriak hala agintzen badu.


— Horrez gain, inoren ordezkari jarduteko ahalorde askietsiarekin sinatzen duenak, bere DNIaren kopia ere aurkeztu beharko du administrazioak konpultsatuta edo notario-lekukotzarekin.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 60. artikuluan ageri diren debekuetako bat bera ere ez duela adierazten duena.

Horrez gain, adierazpen horretan zerga betebeharrak guztiak eta Gizarte Segurantzakoak beteta dituela egiaztatu beharko da. Hala ere, kontratuaren esleipendunak egoera hori egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du kontratua hartu baino lehen.

d) Helbide elektronikoa (badu) jakinarazpenetarako.

e) Atzerriko enpresak badira, Espainiako Epaitegi eta Auzitegien Jurisdikziopean jarriko direla adierazten duen agiria, kontratutik zuzenean edo zeharka sortu daitezkeen gorabeherarik egonez gero. Kasu horretan,



lizitatzailleak uko egingo dio dagokion atzerriko jurisdikzio foruari.

**«B» KARTAZALA
ESKAINZA EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU
DAITEZKEEN IRIZPIDEAK.**

a) Eskaintza ekonomikoa:

Hurrengo ereduaren araberako proposamena:

«Nik, _____ jaunak/andreak,
(jakinarazpenetarako helbidea _____ (e)ko _____ kaleko ____
zk.an duenak eta _____ NA duenak), _____ erakundearen
izenean (IFK: _____), **herriko kiroldegi ondoko ur-txorroen alboko
lursail publiko baten eta Udalak bertan instalatuko duen izozkien, gozokien
eta freskagarrien salmenta-postuaren aprobetxamendua** prozedura ireki
bidez eta lehiaketa eran eskaintza ekonomiko onenari (zeinek diru gehiago eskaini)
adjudikatzeke kontratatzailearen profilean deitutako lehiaketaren jakinaren gainean
nagoela adierazten dut, kontratuaren adjudikaziorako baldintzen plegua ezagutzen
dudala eta osorik onartzen, eta lizitazioan parte hartu nahi dut honako prezioa
aurkeztuta: _____ euro eta ____ euro, Balio Erantsiaren Gaineko
Zergari dagozkionak.

_____ en, ____ (e)ko _____ aren _____ (e)an.

Lizitatzaillearen sinadura,

Fdo.: _____».

**b) Prezioaz aparteko balorazio irizpideak, automatikoki kuantifikatu
beharrekoak.**

Besteak beste, balio-judizio baten mendeko balorazio irizpideak egiaztatzeke
agiriak.

13. Adjudikazio irizpideak

Proposamenak baloratzeko eta eskaintza onena zein den erabakitzeko,
kanon handiena zeinek eskaini duen hartuko da kontuan.

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako
Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko Bigarren Xedapen
Gehigarriko 10. puntuak maiatzaren 8ko 81/2009 Errege Dekretuko 21.1 artikuluari
buruz dioenari jarraiki, kontratazio-mahaiko burua Udalbatzako kide bat edo
funtzionario bat izango da, eta idazkari-lanak udaleko funtzionario batek egingo
ditu. Kontratazio-mahaia lau kidek osatuko dute, gutxienez; horien artean idazkaria



edo, hala badagokio, aholkularitza juridikoa ematea dagokion organoko titularra, eta kontu-hartzailea. Bai eta kontratazio-organoak karrerako funtzionarioen, udalaren zerbitzuko lan-kontratupeko langileen edo bertako hautetsien artean aukeratutako beste batzuk ere.

Kontratazio-mahaia hauexek osatuko dute:

- Juan Jose Txurruka Txurruka jauna, Mahaiburu jardungo duena.
- Iratxe Rementeria Otxandio andrea, mahaikidea (Udaleko idazkari eta kontu-hartzailea).
- Irma Etxeberria Gerenabarrena andrea, mahaikidea.
- Iñigo Ansola Kareaga jauna, mahaikidea.
- Aitor Odiaga Garate jauna, mahaikidea.
- Inma Aransolo Arizmendiarrjeta andrea, mahaiko idazkari arituko dena.

14. Administrazioaren eskumenak

Kontratazio-organoak, hauexek eskumenak izango ditu, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 210 artikulua araberak.

- a) Kontratuaren interpretazioa.
- b) Kontratua betetzerakoan egon daitezkeen zalantzak erabakitzea.
- c) Kontratua aldatzea interés publikoko arrazoiengatik.
- d) Kontratua suntsitzea eta horren ondorioak zehaztea.

15. Proposamenak irekitzea

Kontratazio-mahaia, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo bost egunekoan eratuko da, eta «A» kartazaleko dokumentazio administratiboa kalifikatuko du.

Kontratazio-mahaia, aurkeztutako agirietan zuzentzeko moduko akats eta gabeziarik ikusten badu, hiru eguneko epea emango dio gehienez ere lizitatzailari horiek zuzentzeko.

16. Dokumentazioa eskatzea

Ondoren, «B» kartazalak irekiko dira.



Judizio-balio baten arabera kuantifikatu daitezkeen irizpideak eta automatikoki kuantifikatu daitezkeenak baloratu eta gero, kontratazio-mahaiak kontratua eskaintza ekonomiko onenari adjudikatzeko proposamena egingo du.

Kontratazio-mahaiak eskaera egingo dio eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailerari, bost laneguneko epean, eskariaren ebazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 64.2 artikulua xedatutako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak aurkez ditzan edo kontratazio-mahaiari baimena eman diezaion ziurtagiri horiek zuzenean lortzeko, kontratua egiteko aipatu zituen bitartekoak benetan dauzkala egiaztatzeko eta behin betiko bermea eratu izana ziurtatzeko.

17. Behin betiko bermea

Eskaintza ekonomiko onuragarriena egin duen lizitatzailerak 500 euroko bermea eratu duela egiaztatu beharko du.

Lizitatzailerak honako moduren batean eratu ahalko du bermea:

a) Eskudirutan edo zor publikoaren baloreetan, eta, beti ere, lege hau garatzeko arauak kasuan kasu ezartzen dituzten baldintzak beteta. Eskudirua eta dagokien liburuetan idatzitako baloreen ibilgetze-ziurtagiriak Gordailuen Kutxa Orokorrean edo kutxa horrek Ekonomia eta Ogasuneko ordezkarietan dituen sukurtsaletan jarri behar dira, edo, bestela, autonomia-erkidego edo toki-erakunde kontratatzaileen kutxa nahiz establezimendu publiko parekoetan, kontuan hartuta zein administraziotan izan behar duten eragina, eta, betiere, lege hau garatzeko arauak ezartzen dituzten erak eta baldintzak beteta.

b) Abalaren bidez. Espainian jarduteko baimena duten banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba, kredituko finantza-erakunde eta elkarren bermerako sozietateek lege hau garatzeko arauak ezarritako eran eta baldintzen arabera eman behar dute abal hori, aurreko a) hizkian aipatzen diren establezimenduetan.

c) Kauzio-asegururako kontratu baten bidez. Kontratu hori egin behar da arlo horretan lan egiteko baimena duen erakunde aseguratzailer batekin, Lege hau garatzeko arauak ezartzen duten eran eta baldintzen arabera. Aseguruaren ziurtagiria aurreko a) hizkian adierazitako establezimenduetan aurkeztu beharko da.

Ez da bermerik itzuli edo ezereztuko harik eta berme-aldia amaitu eta kontratua behar bezala bete arte.

Berme hau, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 100. Artikuluan sartutako kontzeptuak beteko direla ziurtatzeko da.



18. Emakidaren formalizazioa

Emakidaren formalizazioa administrazio-agiri batean egingo da hamabost laneguneko epearen barruan, adjudikazioaren jakinarazpen datatik aurrera zenbatuta. Agiri hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikora heltzeko.

19. Kontratuaren erregimen juridikoa

Kontratu honek izaera administratibo berezia du, eta bere prestaketa, adjudikazio, ondorio eta iraungipena Plegu honen xedapenen mende egongo dira. Bestalde, Plegu honek aurreikusten ez duen hartan, xedapen hauek aplikatuko dira: Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua -Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilea partzialki garatzen duena-, eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuarekin bat datorren guztian eta 817/2009 Errege Dekretua indarrean sartu zenetik indarrean dagoen heinean; osagarri moduan administrazio zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira eta, hura ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioak izango du eskumena kontratu honetan bi aldeen artean sortzen diren eztabaidak ebazteko, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 21.1 artikularekin bat etorriz.

Markina-Xemeinen, 2015eko martxoaren 23an.

Alkatea,
Izpta.: Juan Jose Txurruka Txurruka